

## FAUNA PUBLIKOA

# "Nik espainiar izaten jarraituko dut"

**Mariano Rajoy,**  
**Espainiako presidentzia**  
**utzi aurreko azken hitzaldian**

## Meme bat zen presidentea



Gorka Bereziartua Mitxelena  
@boligorria

Berak espainiar izaten jarraituko du. Oso espainiar eta asko espainiar. Baina klaro, ez Espainiako presidente. Eta horrek dena aldatzen du. Hara hor zergatik daukan tragi-komedia kutsua adierazpenak, zeinaren ondoren, dena argituko zen arratsalde hartan, ez zen itzuli lantokira, nahia-go izan zuelako jatetxe batean ordu batzuk, asko, gehiegi pasa eta pixka bat nordea galduta atera –bigarren aldiz galduta: EAJren *vendetta* komunikatu zioten eguerdi hartan–.

Mariano, Mariano, Mariano Rajoy badoala Moncloatik, joan dela hau irakurtzen ari zarenerako; eta nik imajinatu nahi dut eszena: azkeneko aldiz etxe presidentzialetik ateratzen galtza motzetan eta zapatilak jantzita, korrika egitea ez den baina korrika egitearen antza eduki nahi duen ibilketa deportibo hori praktikatzen bizkartzainez inguratuta, azpikontrataturako langile-saldo batek birziklatzera botatzen dituen bitartean presidente ohiaren mahaian pilatutako *Marca*-ren zenbaki zaharrak.

Adio Mariano, hitz bustiko gizona, sintaxiaren abangoardista –"zenbat eta hobe, okerrago denontzat eta zenbat eta okerrago denontzat, hobe; hobe niretzat, zurea, onura politikoa"–, kargua kasualitatez lortu balu bezala jokatu duen gaita galzilar baten kopia humano perfektionatuena: estatuaren bolantea eduki duen sei urteetan soinu berdintsua atera du ezkontzetan eta funeraletan.

Hemendik aurrera ez dira hainbeste aipatuko bere politikak eta korruptelak; eta merezi duen lekua emango zaio fenomeno kultural gisa. Dena birala den garaian, dena sare sozialetatik pasatzen hasi den hamarkadan, aitortu behar baitzaio meritua: presidente eta meme izatea lortu du, biak aldi berean. ■

# EZ HANKA EZ BURU!

